

ELKARRIZKETA • **Jon Azpillaga** eta • **Jon Lopategi** bertsolariak

4

Zubigilea

Hasi, Azpillaga liburua idatzi du Mikel Aizpuruak, non Pasaian jaio, Berriatuar hazi eta Mutrikun bizi den bertsolariaren bizit. jasotzen duen. Bi bertso molderen zubi izan (Jon Azpillaga. Gizon luze eta lerdnaren ibilerak Euskal Herrian makina bat bider ikusi dira. Eduki politikoa kontzienteki bertsoari jarri zion, Lopategirekin elkartu ostean. Etxea izar zuen eskolarik onena, giro abertzale eta euskaltzalean hazi eta hezitakoa baita. Bertsolaritza garai hartara egokitzen jakin zuen. Gaur egun, gizarte antolakuntza berrir «ederki egokitu da bertsolaritza», Azpillagare aburuz. Baina, orduko eredua du gogokoago «Ordukoa nahiago dut, jendearekin harreman ere zuzenagoa zen», dio harro, gaur egungo gutxietsi gabe. Izan ere, egoerara moldatzeko bere-berea du dohaina. Gazteekin kantatu behar bada, gaiet izaten die beldur gehien, «ondo erantzuten jakingo ote dudan edo». Gairik gabe ibiltzea du maiteen, hala ere. Urteetan ibili izan da horrela. Binaka aukeran nahiz bakarka ere kantatu izan duen behin baino sarriago. Bertsotarako lagun oparoa izan du Jon Lopategi. Muxikarrak mila bider erranen zion: «Hasi, Azpillaga». Eta Azpillaga hasi.



«Barruak hala eskatuta izan ginen herriar ahotza diktaduran»

Ez da oraingoa bi bertsolari handi hauek lotu dituen harremana. Kasik 40 urtez elkarrekin kantuan aritu dira. Berriki bakoitzaren biografia bana argitaratu izanak aitzakia eman digu biak elkartzeko.

Jon Abril • Zornotza

• **Bikote moduan 1964an hasi zintzen, nahiz lehendik ere bertsotan arituak zintzen biak.**

Azpillaga: Gehienbat bikote moduan hasi ginen orduan elkarrekin, urte horretatik aurrera. Ordura arte ibiliak ginen bertsotan biak, hainbat saiotan, beste bertsolari batzuekin, baina elkarrekin 1964tik aurrera asko aritu ginen.

Lopategi: Elkarrekin Mutrikun hasi ginen kantuan, baina Ataungo San Martinetan egindakoa izan zen geroa behin eta berriz errepikatuko genuena. Gipuzkoan asko aritu ginen, Goierri aldean eta batik bat.

• **Hori da aipagarriena, bi bizkaitar aritu zinetela anitz Gipuzkoan.**

Azpillaga: Bizkaian ere asko ibili ginen, baina Gipuzkoan gehiago.

Lopategi: Egiten genituen saioetatik, hamarretik zortzi edo bederatziz izaten ziren Gipuzkoan. Atera kontuak! Askok ibiltzen ginen Gipuzkoan.

• **Garai hartan, gainera, Bizkaian bertsolaritza ez zebilen sendoegi, gainerako lurraldeekin alderatuta.**

Lopategi: Gainerako lurraldetan sendoago zegoen, eta haiek ere ibiltzen ziren asko plazetan. Gehienetan bikoteka ibiltzen ginen, eta guk biok ospea hartu genuen, eta bioi elkarrekin joateko deitzen ziguten askotan.

• **Bertsolaritza anitz aldatu da harrezkero.**

Azpillaga: Askok. Nik garai hartakoa nahiago dut. Oso garai polita izan zen. Fikziozko gairik gabe ibiltzen ginen bertsotan. Kantatu behar genuen herrira heldu, bertsotan hasi

eta han aurreko aldean ikusten genuena izaten zen bertsoetarako nahiko arrazoi. Ez genuen gai gehiagorik behar, eta librean oso gustura ibiltzen ginen biok elkarrekin. Gainera, librean kantatzeak arazo ugari saihesten zuen, gaiak lehenagotik Gobernu Zibileran eraman behar izaten ziren, eta hango baimena behar izaten zen. Arazo gutxiago izaten zen librean. Gainera, jende artean gaia dagoenean, zertarako sortu. Gai bat baldin badago, eta hari kantatu behar bazaio, aurrera. Niri Jonen alabaren paperean jarri beharrak ez dit sekula graziaz egin.

• **Bertzelako funtzio bat betetzen zuen bertsolariak, ezta?**

Lopategi: Bai, gertaerak kantatzen genituen, han ikusten genuena, iritzia, giroa... Herriak ere gauza horiek entzun nahi zituen, abertzaletasuna, euskara... Horiek kantatzerakoan jendeak oso ondo erantzun zuen.

Azpillaga: Gainera, ez zegoen besterik. Bertsolarien bidez jasotzen zuten jendeak orduko kontuak. Jendeak abertzaletasunaz eta horrelakoez entzuteko aukerarik ez zuen izaten.

• **Bertzelako bizimodua zen ordukoa. Publikoarekin orduan zegoen harremanaren falta sumatzen du-zue?**

Azpillaga: Goiz irten behar zen etxetik, kantatu behar zen herrira iritsi eta jendearekin hitz egin. Hango

bitxikeriak, kontuak jakin... Orain, ordu erdi lehenago joaten dira bertsolariak, kantatu eta berehala alde egiten dute. Harreman hori galdu da. **Lopategi:** Oholtzako lana bukatuta, gero ere kantatzen genuen tabernan, edo bazkaritan. Han joaten ziren bertso gehiago, eta han ezagutzen genuen jendea, kontu gehiago jaso...

• **Giro hori goitik beheiti aldatu da. Bertsolaritza ere aldarazi du horrek, galetan, moldetan, harremanetan...**

Azpillaga: Bizimodua aldatu da, eta bertsolaritzak ere aldatu behar izan du. Beste lasaitasun batekin bizi ginen, oraingo presarik gabe, eta hori bertsotan ere antzeman da.

• **Gaur egun, ordea, jaialdiak eta ofiziotako lanak dira nagusi. Nola moldatzen zarete?**

Azpillaga: Egin behar bada egiten da, baina nahiago dut librean aritu, eta bikotean talde handian baino. Gainera, orain bertsolari asko dago. Jesus! Gure garaian gutxi batzuk baino ez ginen ibiltzen bertsotan. Ni ez naiz hain gustura aritzen. Oraingoa, gainera, jantziagoak daude, eta batzuetan gaiari erantzuteko ere nahiko lan izaten dugu.

Lopategi: Hori ere izaten da. Jarritako gaiari ongi lotzen ere jakin behar da. Deitzen badidate joan egiten naiz, baina saio gutxiago egiten dugu orain.

• **Bertsolaritzak zuen ahotik mezu politikoa hartu zuen. Paulo Iztuetak**